

5- Kanalak:

_____Gure produktua ezagutarazteko eta zabaltzeko zenbait kanal erabiliko ditugu. Komunikazio kanal propioen bitartez, bezeroei modu zuzenean ailegatuko gara;alde batetik *Facebook*, *Instagram* eta *Twitter* izango ditugu eta hauekin produktu berriak eta eskaintza bereziak plazaratuko ditugu. Beste alde batetik denda online bat izango dugu, honen bitartez produktuak interneten bidez erosteko aukera emango diegu bezeroei, erosotasuna eta efizientzia eskainiz.

Elkartutako (zeharkako) kanalen bidez, gure produktua saltzeko aukera zabalduko dugu; hauek hiri eta herrietan zehar aurki ditzakegun dendak dira, eksklusiboak ez diren arren Eurittak® salduko dutenak. Hauen artean *Decathlon*, *Corte Ingles*, ortopedia, jaioberrientzako dendak aurkitzen dira. Geure produktua baliabide hauetara eramateko gure furgoneta propioaz baliatuko gara, erraztasunez eta beharreko momentuetan garraiatzeko aukera emango digu.

Behin produktua online erosita, haren banaketa dator; horregatik paketeria enpresa bat daukagu azpikontrataturik, hapiick® izena daukan. Honekin lortuko duguna produktua jasotzeko erosotasuna izango da, honek eguneko edozein momentutan jasotzeko aukera ematen baitigu.

